

## 2014-UDAZKENA-AUZO BATZARRAK

<b>Auzoa</b> Barrio	LANDALUZE
<b>Data</b> Fecha <b>Ordutegia</b> Horario <b>Lekua</b> Lugar	2014-12-17 19:00 – 20:30 Toki On Jatetxea / Restaurante Toki On
<b>Asistentzia</b> Asistencia	<p><b>*Ordezkaritza politikoa / Representación política</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Jon Iñaki Urkixo Orueta (BILDU)</li> <li>- Amets Meaza Castañares (BILDU)</li> <li>- Alfonso Larrazabal Aldama (BILDU)</li> <li>- Iñigo Martinez Cerrillo (BILDU)</li> <li>- Juanma Ibarretxe Revuelta (EAJ-PNV)</li> <li>- Julián Larisgoitia Zarate (PSE-EE)</li> </ul> <p><b>*Udal teknikariak / Técnicas/os municipales</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Juan Fernando Etxebarri Goiria, Jefe de Obras.</li> <li>- Felipe Markuartu Goikoetxea, Encargado Obras.</li> </ul> <p><b>*Idazkaria / Secretaria</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Izaskun Egia Eskuza</li> </ul> <p><b>*Dinamizatzailea / Moderador</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Jose Cerro Alvarado</li> </ul> <p><b>*Auzokideak / Vecinas/os</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Total: 17 personas</li> <li>- 15 hombres y 2 mujeres</li> </ul>
<b>Gai-ordena</b> Orden del día	<p>0.- Aurkezpena</p> <p>1.- Lan eta Zerbitzuen Foru Plana: Geltoki Plaza, tunela, Maestro Elorza.</p> <p>2.- Lan eta Zerbitzuen Foru Plana: Lamuza parkea.</p> <p>3.- "Hamesa"ren etxeak: Norabide bakarra.</p> <p>4.- Barbara bihurgunea. Goragunea.</p> <p>5.- Jolas parkean eginiko konpontze-lanak.</p> <p>6.- Landa bideak eta errepideak.</p> <p>7.- Ludio udalaren web berria (<a href="http://www.laudio.eus">www.laudio.eus</a>)</p> <p>Berriak: Zalantzaren bat galdetzen duen edozein auzokorentzat erantzun arineko postontzia.</p> <p>8.- Enpresen mintegia (15 m<sup>2</sup>ko 9 lokal; ordainketa: 180 €/hilabeteko, gutxi gora behera, inbertsioa: 90.600 €)-</p>

<p><b>Contenido.</b> Contenido</p>	<p><b>1.- LAN ETA ZERBITZUEN FORU PLANA: GELTOKI PLAZA, TUNELA, MAESTRO ELORZA.</b>  Obralaneko lehen fasea Jose Matiako izan zen eta gaur egun jada hasita dago Geltoki Plaza, tunela, Maestro elorza barne harzen duen obralanaren bigarren fasea; burdinbideen azpidko lurpeko pasabidearen birmoldaketan, hori zabaldu egingo da gaur egun dituen 2 m zabaletik 7,5 era. Hauxe da herri osokoa obralan interesgarria, izan ere, ez die zerbitzua eskaintzen Latorro auzokoei bizilagunei soilik, baizik eta, baita futbol zelaira doan jende guztiari ere.  Obralanaren guztirako kostua 2.890.473,04€ da Aldundiak diruz laguntzen du %40 inguru eta diruz laguntzen ditu soilik azpiegiturei dagozkien obralanak (ur beltzak, ...) baina tunelekoa bezalako obralanak Herrriko Etxeak ordaintzen ditu ehuneko ehunean.</p> <p><b>2.- LAN ETA ZERBITZUEN FORU PLANA: LAMUZA PARKEA-BERRITZEA SANEAMENDUA ETA OINARRIZKO AZPIEGITURAK.</b>  Ez da parkeko birmoldaketa. Horretarako badago 3.00.000€ko aurrekontua. Parkearen birmoldaketa obra horren barruan badago hondakin uren eta ur beltzen isurbideak ateratzea erreka ubidearen erditik alboko alde batera, parkeko pasotik beherago, eta horiek lotuko dira aldi berean, Zumalakarregin kuartel-etxearen aldean dagoan orokorrarekin. Hala, Ugarte auzoak eduki du, azkenik, saneamendua baldintza egokietan. Obralan hau gauzatzearen arrazoiak izan dira: erreka ubidea oso kaltetuta dagoela eta uda aldean ura eskasagoa denean, hori iragazi egiten dela hondakin uretan eta alde osoari kirats janezina ematen diola.  01.266.034,51€ko kostua duen obralan honetarako, azpiegitura bat denez, Aldundiak eman duem diru-laguntza % 80koa da.</p> <p><b>3.- "HAMESA"REN ETXEAK: NORABIDE BAKARRA.</b>  Auzokoei proposatuta, Udalak norabide bakarra jarri zuen Hamesako hiru etheen inguruan, alde horretan zeuden zirkulazio arazoak saihesteko.</p> <p><b>4.- BARBARA BIHURGUNEA. GORAGUNEAK:</b>  Obralana amaituta dago Uraren Euskal Agentziak eta Kantauri aldeko Konfederazio Hidrografikoak emandako baimenen eta desjetzapentako urte ugariaren ostean. Dirudienaz azken emitzak ez direla guztien gokoak, alde horretako auzokoen aldetiko kezu nahiko izan direlako bihurgune sarreran dagoen goraguneaga dela-eta. Bihurgune hori beti izan da polemikoa ikusgarritasun eskasagatik eta autoen abiadruagatik; horregatik, printzipioz, teknikariek lehenetsuna eman diote oinezkoen segurtasunari abiadurari baino. Denborarekin ikusiko da asmatu den ala ez eta auzokoei esan ahalko dute baita tradura moldatu behar den ala ez ere. Balorazio eta egokitzapen horri denbora bat emango diogu, dagoen legez ohitu gaitzen, eta gero baloratu ahal izango dira egin beharreko soluzio ezberdinak.  Juanferrekin azaldu du goragunearen zergatia eta arrazoiak. Badio ez dagoela araudi ezargarririk tokiko eskumena delako eta udala ez daukalako horri buruzko araudirik. Dagoen araudia estatuko etamailakoa da eta aldundiaren errepideetakoak. Beraz, ez du</p>
--	---

araudirik hausten, horrelkarik ez baitago. Kasu honetan lortu nahi zena bazen abiadura gutxitzea eta obralaneko zuzendariak iritzi diote goragune horretatik ondo pasa daitekeela 20 -30 km/orduko abiadan eta hori da txostendu dutena eta egin dutena. Beraiek dira onartu dutena goragunea horrela egitea. Beste gauza bat da ados gauden ala ez emaitzarekin, bera pasatzeko behartzen gaituelako bertatik astiro joaten.

#### **5.- ERREFORMAK HAURREN PARKEAN.**

Aurreko batzarrean berba egin zen kulunka eta inguruetan egindako hobetze-lanei buruz. Hobetze-lan horiek jarraitu izan dira egiten hormigoizko mahaien aldean eta, gainera, auzokoek hala eskatuta, mahai-teniseko mahai bat ipini da.

#### **6.- LANDA-BIDEAK**

2012 urtean aurrekontuko 60.000€ xederatu ziren landa-bideak hobetzen hasteko. 2013 urtean 117.888€ izan ziren landa-bideetara xederatu zirenak eta erabili ziren edo inbertitu ziren Astobitza, Gardeagotxi, Olako, Morteru eta Lekandazarrerakoetan. 2014 urterako badago 82.000€, eta oraindik obralanik egin bada ere, horiek dagoeneko esleituta daude eta egingo dira Lusurbeilanda, Katuxa Ibarra eta Gardeagotxin

#### **ERREPIDEAK.**

Aurtengo 2014 urte honetarako 150.000€ xederatu da Gardea-Irukurutzeta-Txirrita errepidea konpontzeko.

Asmoa bada datozen urteetan jarraitzea errepideen hobetzearekin, Aretatik Virgen del Carmenera; eta bai egin beharko dena, halaxe asko eskatu delako auzokoen aldetik, bada konpontzea San Martin futbol zelaitik autobia edo saihespiderako sarbidea. Bide zati hori oso txarto dago kamioien joan etorriagatik.

#### **7.- WEB BERRIA. [www.laudio.eus](http://www.laudio.eus)**

Martxan ipiniko da, antza denez, abenduaren amaiera edo urtarrilaren hasiera aldera. Horrekin nahi izan da eskaintzen informazioa argiago aurkeztuta egotea eta erabiltzaileentako funtzionalagoa izatea, gaur egunekoarekin alderatuta, izan ere, zaharkituta geratzeaz gain oso zurruna baita.

Gauza berri legez, sortu esteka bat: "zu zeu udala" izenekoa, Herriko Etxera bidali ahal izateko erabiltzaileek dituzten kexa guztiak sakeleko mugikorraren bitartez eta horrela erantzuna emateko ordurako denbora irabaztea.

Halaber, badago erantzunetarako postontzi bat, non auzokoek egin ahal izan go duten edozein itaun edo galdera udal edo Herriko Etxeko izapideen gainean, Udalaren Herriko Etxera bertara zertan bertatu beharrik gabe.

Hasiera batean, aldi berean funtzionatuko dute bi web atariak edo orriak, zaharrak eta berriak, alegia.

Halaber, beste orrialde bat egongo da <http://www.zurelaudio.net>, non eskainiko den auzo batzarren informazioa.

#### **8.- ENPRESA MINTEGIA.**

	<p>Proiektu badatza 15 m<sup>2</sup> inguruko 9 lokal prestatu eta gaitzean. Zertarako? Enpresa proiekturen bat duten pertsonak hasi ahal izan daitezkeen horri ekiten inbertsio gehiegi edo larregi egin barik. Edukiko dute Internet konexioa, argia eta gutxieneko altzariak, gehitu ahal dutena.</p> <p>Udalaren inbertsioa izan da 90.600€ eta lokale horietan interesa duten pertsonak ordaindu beharko dute hileroko 180€ inguru.</p>
<p><b>Galderak</b> Preguntas</p>	<p>Auzokidea: Aurreko auzo batzarrean komentatu zen Landaluze 34ko farolaren egoera eta ez da egin ezer. Badira etxeari datzekion eskaileretan dagoena, ez errepidera jaisten direnetakoa. Ez dago argirik eta linterna edo esku-argi batez ibili behar da. Aurrez aurre zegoen farola erretiratu egin zen eta orain ez da ikusten ezer.</p> <p>Juanfer: Mota horretako gauzak, batzarrean esan arren ere, ez da zertan egon behar urtebete argi barik, baizik eta Herriko Etxetik pasatu ahal den hori esateko eta adierazteko.</p> <p>Felipe: Badio aurrez aurreko faroka kendu zela; bada kendu zen arazoak zeudelako aparkatzeko eta altuerakoa zenez zona hori guztia argitzen zuen. Orain geratu da apur bat eta arean iluntxoago. Berrirori ere begira daiteke ea aukerarik dagoen hor argiketaren bat ipintzeko.</p> <p>Natxo: Juanferrek esan duenez, batzarretan idatziko oharra jasotzen da esaten denaz, baina aldi zortzi batzarretan jarraian gaudenez, erraza da gauzaren bat ahaztea eta, horregatik ez dator txarto, denbora pasatu eta ikusten baduzue ez dela ezer egin, bada Herriko Etxetik pasatzea edo Feliperi komentatzea alde honetatik dabilenean.</p> <p>Auzokidea: Landaluzem, 9aren aurrez aurrez, erreka erdian, iazko uriolak ekarritako eta hor pilatuta eta metatuta geratu den lohi eta lupetzetan hasi diren zuhaitzak daude.</p> <p>Natxo: Obralan horietarako guztietarako baimena eskatu behar zaio Uraren Euskal Agentzia den URARI, Barbako bihurgunerako eskatu zitzaion legez. Herriko Etxeko edo udalaren mantentze-lanetako zerbitzuak ezin dira errekan sartu zuhaitz horiek erretiratzeko. Horren berri eman ahal zaio Uraren Euskal Agentziari, bera baita baimena eman behar duena.</p> <p>Auzokidea: Badiozu Laudion gauza asko eta oso onak egin direla; baina uste duzu jubilatuen klub bat egin ahal dela erdigunerago guztiontzako balioko ahal izateko, esaterako, Herriko Etxearen ondoko orubean erraz egin zitekeen.</p> <p>Natxo: Laudion badaude dagoneko 3 jubilatuen elkarte eta hor egitea ez da erraz erraza.</p> <p>Auzokidea: laz eskatu zen asfaltatzea "Hamesa"ko etxeetako kalea, bide-zuloz eta urez beteta dagoelako. Gainera, aparkalekuko marrak ez dira ikusten leku gehienetan.</p> <p>Natxo: Orain kamioiak ekartzeko planean asfaltatzea zaila izango da, baina, agian, aurkezten dituen baldintzen arabera, halako konpontze-lan puntualen bat egin liteke.</p> <p>Felipe: Jada betetzen dira bideko zuloak, baina asfaltua beherantz doa.</p>

Auzokidea: “Hamesa”ko etxeetako gauzeekin jarraituta, badio errekarako kalean kotxeak aparkatuta daudela erreka ondoan, ezkerreko gurgila markatuz joan izan da eta badago erreten bat urez beterik. Gainera, albaitariaren aldean bideko zulo asko dago eta horien azpian garajeak daude. Badio 35 urte daramala hor bizitzen, eta soilik behin asfaltatu egin dela eta oso txarto dagoela.

Auzokidea: Trafikoa birrantolatzea ondo dago, baina badio lehen sarrera zegoen lekuan “ez pasa, debekatuta” seinalea ipini dutela, 3 m eta gutxiko altueran dagoela eta ez dela ikusten. Jarraitzen dute kotxeak sartzeko albaitariarengana norabide debekatutik; gero, irteteko buelta ematen dute, baita norabide debekatutik ere, eta beste aldetik irteten dira. Seinalea oso altu dago, baina oso txikia da.

Lehen albaitariaren alboan 3,5Tn baino gehiagoko kamioien debeku seinalea zegoen eta hortik kendu zen eta ipini egin zen sartzeko den lekuan, baina tona gehiagoko kamioiak ere sartzeko dira. Neurriren bat hartu behar da zeren egunen batean behera joango da eta, lurrera. Baita badago arazo bat ere garajeetako arranpaletako irteeran. Irtetzen zarenean, bada arranpala oso luze bat legez, azeleratu behar da eta garajera sartzeko datorren eta lehentasuna duen auto etorri ahal da. Komentatu du ia ezin den ipini seinale bat abisatzeko baita ere kotxeak irtetera doazela; gutxienez ere, abiadura gutxitu dadin. Lurzoruan ezin daiteke ezer ipini dena altxatuta dagoelako, baina marra bat ipini ahal da STOP batekin, autoen irteeran arreta eta kontu apur bat edudi dadin.

Natxo: Galdetu du ia garajeetako sarrera-irteera garajeetako jabe etatitularrei dagokien.

Auzokidea: Garajeko Sarrera-irteerako barandak oso txarto daude. Falta zaizkio barroteak eta edozein haur edo ume eror daiteke hortik. Ahaztu egin dira horietaz. Mantentze-lanen arduraduna auzoetatik pasatu behar du ikusteko nola dauden.

Natxo: Azaldu du udalak orain dela urte bat edo horrela kontratatu zuela soldatzaile bat zona guztietatik barandak konpontzen ari dena eta jakin badakiela mantentze-lanen arduraduna pasatu ohi dela auzo guztietatik.

Auzokidea: Landaluzeko auzoko guztioi eragiten digun gauzetako bat bada “Zukabi”ren igoeran dagoen espaloian, baldosa altxatuak daudelako. Ipintzen dira bi eta altxatzen dira lau baldosa. Oinezko guztiak pasatzen dira hortik, beste espaloia txikia dela eta pertsona nagusiek jausteko edo erortzeko arriskua dutelako. Ez da obralan handia eta bada guztiz gauzagarria eta egingarria.

Auzokidea: Landaluze 34ren pareko atze aldeko mendian, txakurtegi batzuk daude, gauzez zarata handia ateratzen dutenak. Galdetu du ea norenak diren txakur horiek eta ea legezkoak diren txakurtegi horiek.

Natxo: Auzoko bat berba egiten egon zen berarekin, izan ere, baita ere, badauden hortu “ez-legezkoak” eta oilategiren bat edo. Gaia begiratzen egon zela eta lursail guzti horiek jabetza pribatukoak direla. Dauden txakurrak, seguru asko, legezkatuta egongo dira, baina txakurtegiak “ez-legezkoak” izango dira. Udalak adiera deitu zion jabeari alde hori txukuntzeko obligazio eta higienezari buruz. Bere erantzunaren zain ari gara. Komentatu,



baita ere, ez dakiela zehazki zein fasetan dagoen gaia. Hurrengo soluzioa, ez badu erantzuten, ez eta garbitzen ere, arrazoizko denbora batean, izan daiteke udalak berak egitea garbiketa eta gero jabeari berari kobratzea. Gaiaren gainean gaude. Halaber, udalak esku hartu ahal duen beste gaietako bat bada zonaldeko auzokoentzat osasungarritasun eta arriskugarritasunaren gaian, sastrakaz beteta dagoelako. Ibarretxe: Ez daki araudirik dagoen eragozten duena txakurrak gauez zaunka egitea etxean dituzula, nahiz eta eragotzi etamolestatu bai egiten duten. Arazoa garbiketarena bada bai egin litekeela zerbait.

Auzokidea: Galdetzen du berriro ere Barbarako bihurguneko gaiaz. Badio ezen ea zergatik ez diren oinezkoen pasabide guztiak egiten Avenida Zinemakoa egin izan den legez.

Natxo: Errepublikatzen du Juanferrek egindako azalpena.

Auzokidea: Azaldu du Aldundiaren araudiak dioela oinezkoen pasabideak edukiko dituela 15 cm altueraz, 3 m-ko arranpalaz igotzeko eta beste 3 m-ko arranpalaz jaisteko.

Natxo: Abiadura 30 km/Ordukoa izan behar den kasuan, berak uste duela igotzeko eta jaisteko arranpalak izan behar duela cm 1-1,5 cm. 3 m horiek badira sahiespideko errepideetarako, ez herrigunerako hau denlegez. Sahiespideko errepideetan, abiadura altuagoa denez, arranpala 3 m-ra luzatu ohi da.

Auzokidea: Adierazi du ezen San Joan aldea jaitsita, Renault-en eraikina pasa bezain laster, auto bat erre kara erori dela, errepidea hor asko estutzen delako eta bi auto pasatzen direnean ez dagoela lekurik. Erreka mugatzen duen mugarri harroina oso sartuta dagoela. Arraroa dena badela auto gehiago ez erortzea. Galdetu du ea zer egingo den hor.

Felipe: Eskaera eginda dago baina bakarrik baranda berriro ipintzeko lehen zegoen leku berean.

Auzokidea: Ipintzea leku berean eta itxarotea hurrengo auroa eror edo jausi dadin arte.

Felipe: Dio bere ardura badela baranda hori berriro jartzea. Bere iritziz lekuz aldatzeak suposa dezakeela Uraren Euskal Agentzia baimena eskatzea.

Auzokidea: San Joanetik goranzko errepidearen asfaltatza, Larribe bihurgunean, badirudi ez dagoela partidarik hori konpontzeko.

Natxo: Komentatu du ez duela esan espezifikoki zein errepidetan ekingo zaion datorren urtean. Azaldu du komentatu duena badela zein errepide konponduko diren 2015ean, betiere 2014ko partidarekin. 2015ean jarraituko da partida biek, hala asfaltatze orokorrarekin Aretatik Irukurutzetaraino, nola landa-bideenarekin, baina zehaztu barik non.

Auzokidea: San Joan Errepidetik, pinuz zamaturako kamioi ugari jaitsi dira eta hondatu eta hautsi egin dute errepidea; bide-zulo asko daude eta filtrazio edo iragaitzeak egon litezke. Pinuen jabeak ordaindu beharko luke berme bat, errepidea hondatuko balitz konpondu ahal izateko.

Natxo: Dio ez dakiela bermea ezargarria zaion errepideari baina bideei baietz.

Teknikoek emango dute soluzio egokienaren gomendio bat pitzaduretarako.  
Juanfer: Bai, bermea eskatzen da. Sartu ohi da poltsa batean, bideak konpontzeko xedea duena.

Auzokidea: Zaborrontziak garbitu beharko lirateke, oso saskel edo zikin daudelako. Gaineratu du ezen Argitsuren aurrez aurre kontendore batzuk ipini direla ezinduendako tapa jaitsita dutenak. Horiek ez dituela inork erabiltzen eta katuek ateratzen dituztela kanpora poltsa guztiak eta horieta guztia barreiatzen eta sakabanatzen dutela.  
Natxo: Aiara Kuadrilako arduradunari helaraziko zaio iradokizuna, beraiek direlako zaborren bilketa eta kontenedoreen garbiketaren gaia daramatenak. Kontenedoreen garbiketaren gai hau atera da, baita beste auzo batzar batzuetan ere. Zaborrak biltzeko kontratutako enpresak bere kontratuan du halako denbora bakoitzeko kontenedoreak garbitzeko obligazioa. Kuadrilari eskatu egin behar zaio gai horri jarraipena egin diezaion.

Auzokidea: Aldundiak, diru asko kostatu zaion Markuartuko errepidearen obralana egikaritu du, baina jarraitzen du izanik XIX. gizaldiko errepide bat e ta bagaude dagoeneko XXI.enean. Diru hori gasta zezakeen zati bat egitean, baina ondo eginda. Errepideak jarraitzen du egoten lehen zegoen legez, ezin baitira aldi berean eta parean bi auto pasatu, nahiz eta batzuei asko gustatzen zaien nola geratu den.

Auzokidea: Azaldu du garbitzeko makinak soilik garbitu ohi duela igoeraren araberako eskuineko espaloia, 40 cm duena, baina eskailerako hutsunea edo zuloa ez dutela garbitzen.

Auzokidea: Larrañora igotzen den bidea, 47-55 zenbakietan, bere garaian auzokoek beraiek hormigoiz egingo dela. Autoek asko labantzendutela, eta Euskaltelena eta egin izan diren obralan guztien ostean, errepide guztia altxatuta dagoela.  
Gaineratu du komenigarria litzatekeela “irteerarik ez duen kalea” seinale bat ipintzea, auto asko sartzen delako eta ezin delako bueltarik eman. Atzerako martxan joan behar da edo bueltatu behar da. Bai, ipini zen “ezin da aparkatu” seinalea, baina oso altu dago eta ez da ondo ikusten. Komenigarria litzateke apur bat beheragotxo ipintzea.  
Felipe: Komentatu du ideia ona dela “errepidea itxita” seinalearen hori. Seinaleen altuera legeak markatuta dator: 2,5 m-tik gorantz.

Auzokidea: Hitz egin liteke goiko lursailen jabearekin biribilgune bat egiteko, autoek buelta eman ahal izan dezaten.

Natxo: Horrelako ezer ez da erabaki HAPOn. Guztia dago erabakitzeke zain.

Auzokidea: Galdetu du Odeibar kultur zentroagatik, aspaldiko erresidentziako egoitzan.  
Natxo: Dio gai hori oso hotz dagoela, hala auzokoen aldetik, nola udalaren aldetik. Ez dela harremanik izan jendearekin. Eraikinak eduki zituen arazo historikoak bere iritziz konponduta daudela et egin behar dena badela eseri eta berba egiten ipintzea.

Auzokidea: Galdetu du kultur zentroaren lonja zertan den.

Natxo: Hasi zen Pablarekin orain dela urte asko, baina bere iritziz arazoren bat egon omen zela kudeatzearen gaiarekin.

Auzokidea: Galdetu du Hamesako garajeei buruz; zenbat ditu udalak? Eta, zenbat ditu Hamesak?

Juanfer: Azaldu du Udalak saldu egin zituela gehienak; bere iritziz, une honetan, soilik dituela 2 garaje. Orain dela urte batzuk harremanetan izan ginen Hamesako abokatu batekin (beno, ez Hamesarena berarena, baizik eta Hamesa-Abaroaren zatia erosi zutenena), baina gai hau oso alboratuta dute.

Auzokidea: Galdetu du ea Abaroak asmoa duen garaje horiek saltzeko. Beste auzoko batek erantzuten dio ezen Abaroak badituela 60 garaje hutsetik gora alokatzeko.